

25.000 kulturzaletik gora batu dira Durangon



Antolatzaileek 56. Durangoko Azokaren "balorazio positiboa" egin dute; kulturzaileen eta parte hartzaileen "konpromisoa eta ardura" ere txalotu gura izan dituzte. IV. Sormen Beka Ibai Aizpuruak jaso du, 'Barraka' proiekturako. 57. Durangoko Azoka 2022ko abenduaren 7tik 11ra bitartean egingo dute. • 18-19



"Durangon etxean lez sentitu gara hasiera-hasieratik"

Kurdistan • Durango eta Kobane hiria (Kurdistan, Siria) 2017tik daude senidetuta. Egunotan hango delegazio bat egon da herrian, Siriako Ipar-Ekialdeko Administrazio Autonomoko ordezkari bat. Rawda Hasan Qamishlo-ko alkate ohia, Nariman Edvike Idazleen Batasuneko presidentea eta Manal Mohammad KongreyaStar elkartearen kidea hartu-emanak sendotzera eta 'Hala ere' dokumentala aurkeztera etorri dira Durangoko Azokara. • 5

Ourdaybi elkarteak 30 urte bete ditu



Erreportajea • Durangoko Ourdaybi elkarteak 30 urte bete ditu abentura-kirolarekiko zaletasuna herrira eta eskualde osora zabaltzen. Elkartearen kideek argi dute izaera sozial handia duen kirol elkarteak dela euren. 200 bat lagunek osatzen dute elkarteak gaur egun. • 2-3



Otxandioko eskolari, Auzmendi beka

Hezkuntza • Otxandioko Herri Eskolari Joxe Mari Auzmendi hezkuntza beka eman diote 'Escuela Berria' izeneko proiektua garatzen laguntzeko. • 6

NEVERS
IKASTETXEA

**BISITA
PERTSONALIZATUAK**

**AURREMATRIKULAZIO
EPEA ZABALIK**

KONFIANTZAN HAZI ETA HEZI

neversikastetxea.com 946 81 09 46

EZAGUTU
GAITZAZU



Ourdaybi elkarteko hainbat lagun, boulderra duten lokalean, zintzilikatuta.

Ourdaybi: 30 urte abentura kirola eta konpromiso soziala uztartzen

Durangoako Ourdaybi kirol elkarte bere 30. urteurrenean sartu da. Sasoiko dago. Elkartean 200 bat kide daude izena emanda, eta bultzada berri bat emateko asmoa iragarri dute. Elkarte funtsezko erreferentzia da Durangoako eta eskualdeko abentura kirolarientzat

URTEURRENA • EKAITZ HERRERA

Imajinatu soka bat. Abentura kirola dauka mutur batean. Lagun arteko giroa, konplizitatea, bestean. Eta imajinatu orain sokalagun horiek 30 urte egiten dituztela banandu barik. Bada, horixe da Ourdaybi. Elkarte durangarrak 30 urte bete baititu abentura kirola jendarteratzen eta Durango ekosistema sozialean bide bat urratzen. Sasoiko ailegatu da bere 30. urteurrenera: 200 bazkidegaz eta kirol abenturaren erreferente bihurtuta. Aurrerantzean ere, hormetan gora zein ibaietan behera egiten jarraitu gura du, eta urteurreneko ekintzak prestatzeari ere eskainiko dio tarte bat.

Javier Canales Osinaga 'Joni' (Durango, 1973) Ourdaybiko 200 kide horietariko bat da. Bizitza erdia darama elkartean. Askok aritu da batetik bestera. Eskaladan, gehienbat. Baina baita bestelako kirolean ere. Bere esanetan, elkarteak abentura kirola bistratzen lagundu du hamarkada hauetan guztietan. "Nik uste dut Ourdaybik ikusgaitasuna eman ziela oraindino errotzear zeuden hainbat kirolari. Gaur egun Decathlon bat dugu ondoan. Eskaladari buruzko informazioa nahinon dago. Baina garai hartan eskalada egitea gatxa zen; arroila jaitsiera bat antolatzea, are eta gatxagoa; piragua bat edukitzea ez zen bidegarria inorentzat, eta espeleolo-

giagaz, beste horrenbeste. Beraz, iruditzen zait Ourdaybik praktikatzekeo gatxak ziren kirolak erraztu zizkiola garai hartako gazteriarri", adierazi du Canalesek.

Kirol taldeak Zuberoako Ourdaybi arrolari zor dio izena. Elkartearen sortzaileek handik hartu zuten elkarte izendatzeko ideia, arroila-jaitsieratariko batzuk inguru hartan egiten zituztela eta. Berehala etorri ziren gainerako abentura kirolak: raftinga, espeleologia irteerak, piraguismoa, Durango jailetako erreka jaitsiera, eta, zelan ez, eskalada. Eskalada izan delako (eta

Ourdaybik Zuberoako Ourdaybi arrolari zor dio izena; arroila-jaitsierak egin izan ditu han

delako) Ourdaybiren hezurmuina. Canalesek dioenez, eskaladan aritzen direnak dira elkarteko kide "ia denak", nahiz eta bestelako kirolak praktikatzeko dituen gutxiengo bat ere badagoen.

Lehenengo boulderra

Taldearen ibilbidean funtsezkoa izandako mugarririk bat Tabirako boulderra izan zen. Hura izan zen Durangoan eraikitako lehenengo boulder estalia. Udalak Landako I kiroldegikoa ipini baino lehenago ipini zuen Ourdaybik berea. "Boul-

derra Tabirako igerilekuen azpian geneukan, udalak utzitako lokal batean. Lokala materiala gordetzekeo erabiltzen genuen. Irteeraren bat egin gura zuela-eta etortzen zen jendea, piragua, neopreno edo material eske. Gero, lokalari bigarren erabilera bat eman genion. Boulderra ipini genuen. Hura atondu arte, Goiuriako ermitako hormetan egiten genituen gure entrenamenduak", dio Canalesek. Boulderrak zuzenean eragin zuen elkarteko kideen hartu-emanetan. Erreferentziazko elkargune izatera ailegatu zen. Gerora, baina, Ta-

"Eskalada irteera bat egingo dugu Etxaurira, baita mendi orientazioa ikasteko ikastaro bat ere"

birako igerilekuak txarto zeudela eta, udalak lokala hustea erabaki zuen. Ourdaybik lokal hartatik beste batera lekualdatu behar izan zuen.

Gaur egun, Landako I Kiroldegian azpialdean dute lokala, musika taldeen entsegu lokalen ondoan. Lekualdaketa horregaz batera, taldea are eta gehiago jendarteratzea lortu dute. "Herritarrek izena emateari ekin zioten eta kide kopurua hazi egin da. Eskalada irteera bat antolatuko dugu Etxaurira (Nafarroa), mendi orientazioari loturiko ikastaro bat egingo dugu, eta neguko irteera bat ere egingo dugu", aurreratu du Canalesek.

Lorpenik handiena, soziala

30 urte hauetan, Ourdaybiko kideek eskaladako hamaika bide berri zabaldu dute. Zailtasun maila askotako hormetan ibili dira gora eta behera. Baina Canalesek argi dio: "Taldearen mugarririk handiena ez da kirol probei edo txapelketei lotuta egon. Taldearen mugarririk handiena lorpen so-

"Taldearen mugarririk handiena ez da kirol probetan egon, lorpen sozialean baina"

zialean dago". Lehen, futbola edo saskibaloia zen dena, horretan zebiltzan denak. Hortik kanpora bazeuden, izorratuta zeunden. Baina Ourdaybik ekarpen handia egin du arlo sozialean. Gazteriarren sektore bati lagundu diola-koan nago", gaineratu du.

Orain, Ourdaybik bere konpromiso soziala jendarteratzen jarraituko du. Jardunaldiak egingo ditu urteurrena ospatzeko, udaberrian ahal dela. Eta, batek daki, akaso bide berri bat zabalduko dute beste 30 urtetarako.

Eskalada baino askoz ere gehiago

Ourdaybiren jarduerarik esanguratsuenak eskaladari lotuta egon diren arren, elkarrekin beti zabaldu izan dizkie ateak gainerako abentura kirolei. Hona hemen 30 urte hauetako aniztasuna islatzeko lau argazki:

- 1) Arroila-jaitsiera egiteko prestaketa lanak Kakuetan (Zuberoa). Irudian elkarrekin sortzaileetarikoz batzuk daude.
- 2) Espeleologia irteera bat Arrikruz kobazuloan (Araotz harana, Oñati). 1992. urtea.
- 3) Rafting irteera Gállego ibaian (Huesca, Aragoi). 1996. urtea
- 4) Durangoko jaietan egindako eskalada erakustaldia. Elkarteko kideak, Santa Anako dorretik eskegita.



Zentzuz erosi.
Ondo informatu zaitez.
Ezagutu zure eskubideak.
Baztertu estereotipoak.

Zeu zara
zure
influencer
onena.

#KontsumitzenJakin



kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

"Amagaz 'Chiloeches' bisitatzera joaten nintzen kartzelara; trapuzko panpinak oparitzen zizkidan"

Maite Anduezak Durangoko emakumeen kartzela ezagutu zuen; preso madrildar bat bisitatzera joaten zen amagaz



Maite Andueza 'Agurrik Gabeak' ekitaldian.

DURANGO • JONE GUENETXEA

Memoria historikoaren lanketan ikusi da emakumeen kartzeletan gertaturikoa isilarazia izan dela denbora luzez. Durangon bertan, gaur egun Nevers ikastetxea dagoen lekuan, emakumeen kartzela egon zen, 1939tik 1940ra bitartean. Mojek kudeaturiko presondegia zen eta ehunka emakume eta euren seme-alabek muturreko baldintzetan bizirik iraun zuten. Besteak beste, Rosario Sanchez 'La dinamitera' miliziar ezagunak —Miguel Hernandezek poema bat eskaini zion— ezagutu zuen Durangoko presondegia. Haren moduan, estatu osoko beste kartzela batzuetatik ekarritako emakumeak batu zituzten Durangon. Bizi izan zuten egoera gogorari familia eta lagunak urrun izatea gehitu behar zioten.

Egoera horretan, hainbat durangarrek elkartasuna adierazi zieten preso haiei. Maite Anduezen eta bere amaren kasua izan zen. Anduezak berak kartzela egon zen lekuan bertan orain

aste bi antolaturiko 'Agurrik Gabeak' ekitaldian azaldu zuen legez, 'Chiloeches' gatzizena zuen preso ezagutu zuen txikitari. "Amagaz 'Chiloeches' bisitatzera joaten nintzen kartzelara. Madrildarra zen, baina udan Zarautzera joaten zen. Barrenkaleko gure auzokide batzuk zarauztarrak zirenez, uste dut haien bitartez joaten ginela ama eta biok 'Chiloeches' bisitatzera", azaldu zuen Anduezak. Sasoi hartan sei bat urte zituen arren, Anduezak ondo gogoratzen ditu preso eta

Sekula ere ez dute emakume haren benetako izena jakin. Ezta zer gertatu zen ere beragaz

eurak banatzen zituen barrote sendoak. "Amagaz oso pozik joaten nintzen bisitan, 'Chiloeches'-ek eskuz egindako trapuzko panpinak oparitzen zizkidan eta", gogoratu zuen durangarrak. "Egun batean, Zarautzik etorritako neska gazte biren bisita izan zuen. Kartzelatik irteten arte lagundu genien amak eta biok", gaineratu zuen Anduezak. Sekula ere ez dute emakume preso haren benetako izena jakin. Ezta Durangoko kartzela itxi eta gero zer gertatu zen ere beragaz.

Euskara ikasi gura duten euskal presoentzat "bermeak" eta "eskubideak" eskatu dituzte

Presoen Euskara Irakasle Taldearen berbetan, 33 euskal preso daude matrikulatuta euskara ikasteko klaseetan. Haien ikasketak bermatzera deitu dituzte euskal administrazioak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Presoen Euskara Irakasle Taldeak "bermeak" eta "eskubideak" eskatu ditu kartzeletan euskara ikasten dabilen euskal presoentzat. Taldeak Durangon egindako agerraldian azaldu duenez, momentu honetan 33 euskal preso daude matrikulatuta euskara ikasketetan. Irakasleek tutoretza lanak egiten dituzte, modu boluntarioan, eta adierazi dute eskola horiek "egoe-

ra penagarrietan" eskaini behar izaten dituztela. Euren esanetan, eskolak lokutorioetan ematen dituzte, boligrafoz eta paperik barik, entzumena lantzeko eze-lango baliabiderik barik. Horrez gainera, idazlanak eta zuzenketak "posta bidez eta senideen bitartez helaraziz" lantzen dituzte, "lagunen bisita zerrendan leku bat" eurentzat hartuta. Hori dela eta, eskariak egin dizkiete euskal

administrazioei. "Euskal presoek euskara ikasteko eskubidea dute eta euskal administrazioei dagokie berme hori betearaztea. Ondorioz, bide horretan urratsak hainbat arinen ematea exijitzen diegu, dago-kionagaz dagozkion hitzarmenak eginda", esan dute. Irakasle Taldeak "ofizialtasuna" eskatu du euskara ikasketentzat; kartzeletako beste ikasketak batzuei aitortzen zaien "ofizialtasun bera".



Prensaurrekoa joan zen domekan eman zuten, Durangoko Udal Euskaltegian.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko abenduaren 10a
20. urtea - 874. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Rawda Hasan Qamishlo-ko alkate ohia, Nariman Edvike Idazleen Batasuneko presidentea eta Manal Mohammad KongreyaStar elkarteko kidea.

"Ikusi dugu euskaldunak oso lotuta daudela euren kulturara eta hizkuntzara"

Durango eta Kurdistango Kobane hiria 2017tik daude senidetuta. Egunotan hango delegazio bat egon da Durangon, Siriako Ipar-Ekialdeko Administrazio Autonomoko ordezkari bat. Hartu-emanak sendotzera eta 'Hala ere' dokumentala aurkeztera etorri dira

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Zelakoa izan da zuen egonaldia Durangon eta Euskal Herrian?

Jaso dugun harrera beroa, abegi-korra eta gertukoa izan da. Hasiera-hasieratik etxean lez sentitu gara. Konturatu gara gauza askok batzen gaituztela eta ikusi dugu askok bazutela gure herriaren eta hango borrokaren berri. Hemen, Durangon, familia asko ezagutu dugu. Euren etxeetan egon gara. Eta ikusi dugu euskaldunak oso lotuta daudela haien kulturara eta haien hizkuntzara. Horrek indar handia eman digu. Hemen sentitutako erresistentzia eta borroka sentimendu hori gure lurraldera eraman daitekeela uste dugu.

Azokan 'Hala ere' dokumentala aurkeztu duzue, Kobaneko liburutegiari buruzko dokumentala.

Tamalez, Ekialde Hurbilaren errealitatea da armak hartu barik oso gatxa dela zure eskubideak eta zure kultura defendatzea.

Horregaitik, amets txiki bat betetzea, zure hizkuntzagaz osaturiko liburutegi bat zabaltzea adibidez, izugarriko borroka da. Filmean erakusten den familiarren egoera beste familia askoren erakusgarri da. Amets bat egia bihurtzeko borroka kontatzen du. Kasu honetan, kurduerazko liburutekin osaturiko liburutegi bat zabaltzeko. *Hala ere* izenburuagaz horixe adierazi gura genuen, egiten digutena egiten digutela ere, gure ametsen alde borrokatzen jarraituko dugula.

Zelakoa da bizimodua Kobanen, eta zelakoa da Kurdistango gainerako lurraldeen arteko hartu-emanak?

Hiria askatu zenetik, herritarrik gehienek bertara bueltatzea lortu dute. Hiria berreraikitzeke grina handia egon da, baina Turkiak, batez ere, Kurdistango hainbat lurralde okupatu du. Eta Kobane gertu dagoenez gero, mehatxupean dago. Herritarren egoera psikologikoa beldurrez eta meha-

txuz beteta dago. Egon dira saia-kerak Kobaneren eta gainerako lurraldeen arteko hartu-emanak indartzeko, baina Turkiak Kurdistango iparraldean eragindako errepresioaren eraginez ia ezinezkoa da hartu-emanak sendotzea. Mugak fisikoki itxi ditu harresiak eraikita. Horrez gainera, errefuxiatuen kanpalekuetan milaka herritar dago eta Turkiak ur-hornidura darabil gerrarako arma legez.

Zuen delegazioa hiru emakumez osatuta dago; gerran, emakumeak armak hartuta ageri ziren argazkiak ailegatzeko zitiatzizkigun. Zein rol du emakumeak Kurdistanen?

Emakumeak funtsezko rola jokatu du beti. Adibide txiki bat: gizartea klanetan banatuta dago, familia modukoetan, eta klan bakoitzak emakume izena du, horretarako hain zuzen ere, emakumearen rola azpimarratzeko. Bestalde, azaroaren 25eko mobilizazioetara gizonak ere joaten hasi dira.

'Euskararen telefonoa' sortu dute, Durangoko komertzioei euskara erabiltzea errazteko

Establezimenduek 630474332 telefonora jo dezakete itzulpengintza edo aholkularitza zerbitzuak eskatzeko



Dendak Bai-ko, udaleko eta Berbaroko kideak.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak beste pauso bat eman du herriko merkatariei eta ostalariei euskara zerbitzuak eskaintzeko. *Euskararen telefonoa* deituriko zerbitzua sortu dute, establezimenduetan lan egiten dutenekin hartu-eman zuzena izateko. Hau da, euskarari loturiko beharrezkoen bat duten ostalari zein dendariak 630474332 telefonora jo dezakete hemendik aurrera, zerbitzu eske. Besteak beste, itzulpenak eta aholkularitza zerbitzuak eskatu ahalko dituzte. Baita diru laguntzak ere. Telefonoaren beste aldean egongo diren euskara teknikariek ahalik

eta azkarren erantzunak diete eskatzaileei. Horretarako, nahikoa izango da bertara deitzea edo WhatsApp mezua idaztea. Udaltzariak "oinarrizkotzat" jo dute merkatariekin "hartu-eman zuzena eta hurbilekoa" izatea, komunikazio "etengabekoa" eta, batez ere, "euren beharrezkoen berehalak" erantzutea.

Bestalde, udalak dagoeneko martxan du Euskara Sustatzeko Ekintza Plana. Ekintzen artean daude Dendak Bai elkarteagaz euskararen erabilera areagotzea barnebiltzen duen hitzarmena eta laguntza teknikoak zein ekonomikoak.

Baserriko produktuen azoka abenduaren 19an, Garain

GARAI • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abenduaren 19an baserriko produktuen azoka egingo dute Garain, plaza inguruan. Azokako antolatzaileek jakinarazi dutenez, 11:00etatik aurrera askotariko produktuak dastatu eta erosteko aukera izango dute bertaratzen

direnek. Guztira, hamar bat postu izango dira. Garai kontserbak eta Garai Garagardoak dira bertan parte hartuko duten ekoizletariko batzuk. Mallabitik hiru ekoizle ere bertaratuko dira, gazta, gozoak eta baserriko ogia egiten dituztenak. Zornotzako txakolina, sagardoa eta eztiak ere erosi ahalko dira, eta baita lurretako baserriko ogia, Mañariko alga jangarriak eta Mungiaiko ahatekia ere, besteak beste.

Abenduak 12 Domeka
Gorbeialde

Otxandioko XXI. nekazari eta artisau azoka 2021

10:00 - 14:30
Azoka

11:30 - 13:00
Otxandioko dultzaineroak eta trikitilariak girotuko dabez kaleak

13:00
Herri Kirolak
Udane Ostolaza harri jasotzailea
Garazi Urrutia aizkolaria
Irati Astondoa aizkolaria

KEMENTSU ELKARTEA

Otxandio bizilagunak betie

Otxandioko Herri Eskolako proiektuari lehenengo Joxe Mari Auzmendi hezkuntza beka eman diote

'Eskola Berria' izeneko proiektuak jaso du 12.000 euroko beka. Ikasleen interesetatik abiatutako ikasketa prozesua indartzea eta eskolaren eta komunitatearen artean zubiak eraikitzea dira garatuko duten proiektuko lan ildoetariko bi

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Hernaniko Udalak eta pedagogiaren inguruko Hik Hasi euskal aldizkariak Joxe Mari Auzmendi beka sortu dute, lehenengoz. Hamar hezkuntza proiektu aurkeztu dituzte beka jasotzeko, eta euren artean Otxandioko Herri Eskolako *Eskola berria* izenekoak eskuratu du 12.000 euroko laguntza. Bekak ikasturte biko iraupena du.

Eskola berria hainbat zutarriren ganean garatu gura duten proiektu integrala da: ikasleen interesetatik abiatutako ikasketa prozesua; eskolaren eta komunitatearen arteko zubiak eraikitzean jarraitzea; mugimendu autonomoan sarkontzea; hizkuntzaren eta herriko kultura eta historiaren transmisioa lantzea; naturagaz hartu-eman estutzea; eta inklusioa lortzea.

Gazteen hezkuntzan, Otxandioko eskolako Nagore Agirrebeitia Fontetxa zuzendariak "beharrezkotzat" jotzen du komunitate osoaren parte hartzea, eta horretan ahaileginduko dira. "Ez ikasleen eta gurasoen parte hartzea bakarrik. Herriko eragileekin batera lan egin gura dugu, eta udalagaz ere bai, esaterako. Azken batean, eskola ez da ezer herririk barik, eta herria ez da ezer eskolarik barik. Horixe da bota gura genuen mezua", azaldu du.



Otxandioko Herri Eskolako irakasle eta arduradunak Joxe Mari Auzmendi beka jaso zuten egunean.

Horregaz batera, gairik ezarri barik ikasleen interesetatik sorturikoak landu gura dituzte. "Horrela sorturiko lanek emaitza positiboagoak zituztela ikusten genuen. Orain, honetan oinarritzen da gure metodologia: talde bakoitzak bere interesekoa den gai bat proposatzen du eta hezkuntza curriculumarek adosturiko

gai horretara moldatzen da", azaldu du Agirrebeitiak. Proiektua Otxandion garatuko duten arren, etorkizunean eredu beste eskola batzuetarako "esportagarria" izatea itxaroten dute.

COVIDa, abiapuntu

COVIDak eragindako itxialdiaren bueltan hasi ziren proiektua lan-

tzen, iazko ekainean. "Familien ardurak eta egonezinak ikusi genituen, eta momentu horretan hasi ginen eskolako metodologia aldatzen. Egoera hark hausnarketa batera bideratu gintuen eta lehenengo pausoak ematen hasi ginen", gogoratu du Agirrebeitiak. Horren ondoren, gaia irakasleen klaustron planteatu eta onartu zuten.

15 urteko ibilbidearen ondoren, Mañariko U2 tabernak ateak itxi zituen astelehenean

MAÑARIA • J.D.

Mañariko U2 tabernan, astelehenean izan zuten azken laneguna. 15 urteko ibilbideari amaiera eman zioten. Denbora honetan bertako ardura izan duen Enrike De Costak etapa berri bati ekingo dio laster, handik metro gutxira, Herriko Taberna-

U2ren kargu egon den Enrike De Costak Herriko Tabernaren ardura hartuko du laster

ren ardura hartuko du eta. Baina ez du U2 taberna berehalakoan ahaztuko. "Xarma berezia izan duen taberna da eta pena ikaragarria eman dit itxeak", onartu du. U2ko bezeroek antolatuta, bazkari bat egin zuten Arri-Toki jatetxean, zapatuan, agur modura. Hasieran, bazkaria frontoian egitea zen asmoa, baina gaur egungo osasun egoera dela-eta asmo hori albo batera utzi zuten.

Izurtzako Nordic Walking guneen informazioa gehitu dute udaleko webgunean

IZURTZA • J.D.

Herri inguruko lau ibilbidegaz, Izurtza Euskal Herriko Nordic Walking sarean sartuta dago iazko abuztutik. Aparkalekua-aren ondoan, ibilbide horien informazioa jasotzen duen panela dago. Azaro amaieratik, beharrezko informazio guztia udaleko webgunera (www.izurtza.eus) ere gehitu dute, behar duenak sarean ere eskuragarri izan dezan.

Izurtza Nordic Walking oinezko ibilbideen sarean sartuta dago iazko abuztutik

Ibilbide zirkular guztiak Izurtzako herrigunean hasi eta amaitzen dira. Laburrenak kilometro bi ditu eta luzeenak ia bederatzita. Ibilbide bakoitza kolore jakin batez seinalatuta dute eta koloreek ibilbideen zailtasun maila adierazten dute.

2022ko aurrekontuen inbertsioetariko zati bat herriko ondarearen balioa nabarmentzeko bideratuko dute Mallabian

Herriko askotariko ondare kulturalak dauden guneetan panel informatiboak ipiniko dituzte ondareok ezagutarazteko



Eraberrituta dagoen Zengotitako garbitegia da nabarmendu gura duten guneetariko bat.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Azaro amaieran, 2022ko aurrekontuak onartu zituzten Mallabian. 2.287.460 eurotan parekatu dituzte sarrerak eta irteerak. EAJren aldeko botoekin egin zuten aurrera. Inbertsioen atalerako, 300.000 euro gorde dituzte. 60.000 euro inguru herriko ondare ezagutarazteko erabiliko dute. "Mallabian, jendeak ezagutzen ez duen ondare baliotsu bat dagoela uste dugu eta horren balioa azpimarratzea izango da gure lehentasuna datorren urtean", azaldu du Igor Agirre alkateak. Ondare horren artean daude Oiz inguruko tumulua, San Juan inguruko ehortzokia eta Zengotita auzoko garbitegia, besteak beste. Gune horietan denetan, kartel informatiboak ipiniko dituzte.

Inbertsioetan, 50.000 euro gorde dituzte plazako kioskoaren inguruko proiektua egiteko. Agirrek azaldu du oraindino ez dutela erabaki bota ala eraberritu egingo duten. Proiektua gauzatzeko falta den dirua soberakinetik hartuko dute.

EH Bilduk aurrekontuen kontra bozkatu du, hainbat arrazoiengatik. Beranoko eta Arandoñoko ur edangarriaren arazoari nahiz Goitako trafikoko arazoari "aipamenik ez" egitea kritikatu dute. Horrez gainera, esan dute ez dakitela Mallabarrena azpiko parkearen inguruan proiektua idazten dabilen enpresa zein irizpideguz dabilen proiektua gauzaten. Kioskoari buruz, "aukera berriak sortuz egokitzea" da euren postura, "erabilera ematen zaion gunea da eta".



Gremioen gida

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza



UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalatazile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza



Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com
Zubiakurte, 8 IURRETA
946 202 768

Arzubio 19 B. Industrialdea, 13-14 pabiloiak ABADIÑO
944 071 791 - 692 852 779

Zurgintza



ATERPE ARBOTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako udalbatzak 2022ko aurrekontuak onartu ditu EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin. EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek aurka egin dute. Udalak 31.089.000 euro izango ditu datorren urtea kudeatzeko, aurreko baino bi milioi euro gehiago. Andoni Agirrebeitia alkatearen berbetan, inoizko aurrekonturik sozialenak dira, inoiz onarturiko gastu sozial kopururik handiena dutena. Miren Martiarena Ogasun zinegotziak adierazi du gizarte kohesioa sendotzea eta susperraldi ekonomikoa sustatzera bideraturiko aurrekontuak direla. Bestalde, Alicia Hernández zinegotzi sozialistak bat egin du aurrekontuekin.

EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek, ostera, ez dute aurrekontuen alde egin. Koalizio subiranistak gazteen enplegua indartzeko neurrien eta trantsizio ekologikoari aurre egiteko inbertsio gehiagoren falta nabarmendu du. Ander Uriarte bozeramaileak Gizarte Ekintzari dagokion arloan egin du azpimarra. Gizarte Larrialdietarako Laguntzen partida 300.000 eurotik 400.000 euro-ra igotzea eskatu du, baina eskariak ez du aurrera egin. 300.000 euroan geratu da. Ildo horretatik, Andoni Agirrebeitia alkateak jakinarazi du urtean zehar par-

Zornotzako udalbatzak "inoizko udal aurrekonturik sozialenak" onartu ditu

EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu dituzte. EH Bildu eta Elkarrekin Podemos ez dira erabakiagaz bat etorri



Zornotzako udalbatza.

tida horretarako diru gehiago beharko balitz prest legokeela kantitatea handitzeko. Bestalde, Elkarrekin Podemoseko Alba Gutierrezek ere aurrekontuen aurkako botoa eman du. Datorren ur-

terako inbertsio nagusien artean, Urgozi kirolegiaren proiektua (1.155.000 euro), Ogenbarrenako urbanizazioa (1.226.000 euro) eta Ziklo plana (368.756 euro) nabarmetzen dira.

Arriandin oinezkoentzako pasabidea eraikiko dute

Iurretako Udalak 6,64 milioiko aurrekontua izango du 2022an

IURRETA • AITZIBER BASAURI

2022rako 6,64 milioi euroko aurrekontua onartu dute Iurretan, 1,137 milioi euroko diru poltsagaz inbertsioetarako; iaz baino 800.000 euro gehiago. Bestalde, 520.000 euro gorde dituzte kultur ekimen eta ekitaldietarako; kultur arlorako diru atala %13 igo dute. Iñaki Totrikaguena alkatearen berbetan, "anbizio handiko" aurrekontua da eta "bizitza kultural eta soziala berreskuratzeko ahalegina" egin dute. EAJk PSE-EEren babesia izan du. EH Bildu abstenitu egin da.

Udalak inbertsio nagusi bi lotu ditu: Arriandi eta Fauste arteko

mugikortasunaren segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko, espaloia eta oinezkoentzako pasabidea eraikiko dituzte (360.000 euro), eta Maiztegi herri eskolan estalki bat eta panel fotovoltaikoak ipiniko dituzte (200.000 euro). Bidebarrieta konpontzeko (60.000 euro) eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorragaz jarraitzeko (80.000 euro) ere gorde dute dirua.

EH Bilduk dio Arriandiko lanak "partxea" direla eta irtenbide "integral bat" behar dela herrirako. Maiztegi herriko lanak zehaztu barik daudela ere badiote. Lankidetzarako prest azaldu dira.



Arriandi eta Fauste arteko mugikortasuna hobetuko dute.



HEMENDIK





ELORRIORA

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
 Tel.: 946 816 673
 Bixente Kapanaga 19, behea 48215, Iurreta
construcciones@zarateyelexpe.com


LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

Ohiko saltokietan salgai

2022

Durangaldeko egutegia

ABADIÑO	Petite Abadiñoako estankoa
ATXONDO	Kiosko Atxondo
BERRIZ	Egunon okindegia
DURANGO	Etxebarria prentsa denda Hitz Liburudenda Arkarazo taberna
ELORRIO	Ilargi prentsa denda
GARAI	Herriko taberna
IURRETA	Iurreta kopistegia
IZURTZA	Herriko taberna
MAÑARIA	U2 taberna
MALLABIA	Herriko taberna
OTXANDIO	Korostondo janari denda
ZALDIBAR	Imendia prentsa denda
ZORNOTZA	Ayerdi prentsa denda



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

Datorren urtean, Elorrioko Udalak 320.000 euro ipiniko ditu Plan Orokorra idatzi eta berrikusteko

EH Bilduren eta Herriaren Eskubidearen aldeko botoagaz, Elorrioren 8.771.000 euroko aurrekontua onartu dute 2022rako

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak 2022ko udal aurrekontuak onartu zituen azken osoko bilkuran, EH Bilduren aldeko botoagaz eta Herriaren Eskubidearen aldeko bozkagaz. EAJk aurrekontuen kontra bozkatu zuen. Guztira, Elorrioko Udalak 8.771.000 euroko aurrekontua onartu zuen, iazkoa baino %11 handiagoa. "Herritarrekin batera ibilbide orri berria prestatu dugu. Herritarren ongizatea lehenetsi dugu. Uste dugu herritarrek ardatz eta protagonista izan behar dutela, eta erabakitze eskubidea izan behar dutela. Amesturiko Elorrio eraikitzen jarraituko dugun konbentzimendua dut. Lan gogorra dugu egiteko, baina bidean gara", adierazi zuen Idoia Buruaga Elorrioko alkateak.

Aurrekontuetako partidarik garrantzitsuenetariko bat Hiri Antolamendurako Plan Orokorra idazteko eta berrikusteko ipiniko dute, 320.000 euro hain zuzen ere. Horrez gainera, San Pio eta Errebonbillo kaleetako eta Kurutzagako bidegurutzea hobetzeko lanak egitea ere aurreikusten dute, besteak beste.

EAJ kritikoa agertu zen aurrekontuekin, eta horien kontra bozkatu zuten. "EH Bilduk inprobisazio asko du", esan zuen EAJren bozeramaile Mikel Arruabarrenak.

Herriaren Eskubidea "pozik" agertu zen onaturiko aurrekontuekin, eta hauen alde bozkatu zuen. "Pozik gaude hiru partida berri zabaltzea lortu dugulako", nabarmendu zuen Herriaren Eskubideko Agustin Fernandez bozeramaileak.



Hiri Antolamendurako Plan Orokorra idatzi eta berrikusiko dute.

Berrizko Udalak furgoneta elektrikoa hartuko du brigadako lanetan erabiltzeko

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Brigadako beharizanak asetzeko, Berrizko Udalak furgoneta elektrikoa hartuko du *renting*-ean. Orlan Isoird alkateak azken osoko bilkuran jakinarazi zuenez, 4 urterako hartuko dute furgoneta alokairuan, eta beste urte bat luzatzeko aukera izango dute. "Ez da lehenengo aldia furgonetaren kontua lizitazioa ateratzen dugula, zero isurketaren kontua lantzen ari gara eta. Aurretik ere atera genuen konkurtsora, baina bertan behera geratu zen. Brigadako lanetarako, nahiko furgoneta handia behar dugu eta diruz justutxo atera genuen", azaldu zuen alkateak. Hori horrela, oraingoan 76,320 euroko diru partidagaz atera dute konkurtsora.

Atxondoko Udalak eguzki panelak ipiniko ditu eskolan eta liburutegian

Atxondoko Herri Eskolan energiagaz hornituko duten 66 plaka ipiniko dituzte, eta liburutegian 21.



Eguzki panelak eskolan eta liburutegian ipiniko dituzte.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak liburutegia eta Herri Eskola energia elektriko hornituko dituzten instalazio fotovoltaikoak ipiniko ditu abenduan. Liburutegian 21 plaka ipiniko dituzte, eta eskolan 66.

"Jarduera honek trantsizio ekologikoagazko eta ingurumena-gazko konpromisoa erakusten du. Izan ere, inbertsio honek modu onuragarrian eragiten du herrian. Alde batetik, udal gastua nabarmen murriztuko da. Bestetik, energia aurreztuko dugu, eraginkortasun energetikoa hobetuko

dugu eta ingurumenaren gaineko eragina murriztuko dugu", azaldu dute udaleko arduradunek.

Atxondoko Udalak %95eko diru laguntza eskatuko dio Bizkaiko Foru Aldundiari

Lan horiek 48.085 euroko aurrekontua dute eta Atxondoko Udalak %95eko diru laguntza eskatuko dio Bizkaiko Foru Aldundiari.

**BASERRIKO
PRODUKTUEN
AZOKA**

Garai
Abenduaren 19an
Goizeko 11:00etatik aurrera

Durangaldea
GARAIO UDALA
URBIOLOA

Abadiñoako Udalak berriro lizitatu beharko du igerilekua estaltzeko obra

Estalkia egiteko kontratua esleitu zitzaion enpresak uko egin dio lan hori egiteari



Igerilekuko estalkia kendu egin zuten uda aurretik.

ABADIÑO • A.M.

Abadiñoako Udalaren esanetan, kontratua esleitu zitzaion enpresak uko egin dio estalkia konpontzeko lanari, "obra ez delako errentagarria materialek gaur egun duten prezioagaitik eta energia-kostuengaitik". Udalak ohar baten bitartez eman du horren berri. Ohar berean, dagozkion neurri legalak hartuko dituela esan zuen, baita obrak berriro lizitazioan ateratzeko administrazio-prozedura martxan jarriko duela ere.

Abadiñoako Udalak 1.286.572 eurotan esleitu du obra. "Aurre-

Abadiñoako Udalak beharrezko neurri legalak hartuko dituela adierazi du ohar baten bitartez

Astolako igerilekuko estalkia 2020ko otsailaren 16an jausi zen, haizeteen ondorioz

rapausoak ematen jarraitu eta proiektua berriro lizitatu baino ezin dugu egin, eta ahalik eta konkurrentziarik handiena izango duen prozesu bat gauzatu", azaldu du Mikel Garaizabal alkateak. Javi Crespo alkateordeak ere lanean jarraituko dutela azpimarratu du ohar berean. "Inork gura ez lukeen puntu batean gaude; izan ere, gehien kalteturiko aldea gara eta ez daukagu konponbide azkarrik emango digun baliabiderik", gaineratu du Crespok.

Astolako igerilekuko estalkia 2020ko otsailaren 16an jausi zen, haizeteen ondorioz.

Bizkaiko Mikeleteen Kidegoaren Etxeko markesina zaharberritu dute

Bizkaiko Foru Aldundiak kultura-ondasun lez katalogatuta duen markesina bakarra da Zaldibarren dagoena



Bizkaiko Mikeleteen Kidegoaren Etxeko zatia zen markesina.

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Zaldibarren, Bizkaiko Mikeleteen Kidegoaren Etxeko markesina zaharberritu dute. Bizkaiko Foru Aldundiak kultura-ondasun lez katalogatuta duen markesina bakarra da hau; Zaldibarko Udalak ere "udal mailako kultura ondasun" izendatua du, eta, beraz, ezin da eraitsi. Gaur egun, markesinak Bizkaibus autobus garraio enpresari ematen dio zerbitzua.

Zaharberritzearen arrazoiak

Zaldibarko Udaleko iturrien arabera, markesinak jausteko arrisku nabarmena zuen eta horregaitik zaharberritu dute. "Bizkaiko Mikeleteen Kidegoaren Etxeko atala zen. Foru kidego horrek XVIII. mendean amaieratik kuarter txikiak zituen Bizkaiko sarrerako muga guztietan, salgaien joan-etorrien gaineko zergak biltzeko eta lurralde mugakideen arteko kontrabandaren aurka borrokatzeko".

Abadiñoako emakume sortzaile, artisau eta ekoizleen azoka

Emakume sortzaile eta artisauen azoka abenduaren 12an egingo dute, Traña-Matienako eskolako patioan

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Domekan, Abadiñoako emakume sortzaile, artisau eta ekoizleen azoka egingo dute, 11:00etatik 15:00etara bitartean, Traña-Matienako eskolako patioan. Abadiñoako Artisan eta Sortzaile Taldeak antolatu du azoka hau eta Abadiñoako Udalak babestuta egingo dute.

Hauetxek izango dira bertan parte hartuko duten emakumeak: Artizar, Crearteconmarta, Zua Lanak, IB Sopas, Irati Bazeta ilus-

Abenduaren 12an egingo duten azoka Abadiñoako Artisan eta Sortzaile Taldeak antolatu du

trazioak, Irama, Leile bitxiak, 13 gatos, Su crea, Monica, Karola, Batana, Ninia, Nerea, Anemona, Urien gazta, Amalur eta Warmi lurra.



Amalurreko kideak lurretan egindako azokan.



NEVERS
INSTITUTO



BISITA PERSONALIZATUAK

AURREMATRIKULAZIO EPEA ZABALIK



EZAGUTU GAITZAZU

KONFIANTZAN HAZI ETA HEZI

neversikastetxea.com 946 81 09 46

Milaka euskaltzalek kalera irten dute "euskararen errepublika" aldarrikatzeko

Euskararen eta hizkuntza eskubideen aldeko borrokaren alde egiteko unea dela esan dute



Abenduaren 6an egin zuten manifestazioa.

DURANGALDEA • ARITZ MALDONADO

Euskal Herrian Euskarazek deituta, milaka lagunek parte hartu zuten, astelehenean, Landakotik irten zuen manifestazioan.

"Grina euskaltzalea berpiztu", eta euskararen eta hizkuntza eskubideen aldeko borrokaren alde egiteko unea dela nabarmendu zuen Koldo Zarate EHEko kideak manifestazioaren ondoren Santa Anan egindako ekitaldian. Euskaltzaleentzako eta euskalgintzarako mezuak ere izan zituzten ekitaldian, eta baita eragile inde-

pendentistentzat ere. "Datozkigun astinaldiak bizirik gauden euskaldunak gehienok inoiz eza-gutu ez ditugun dimentsio eta intentsitatekoak izango dira eta horiei herri lez baturik baino ezin-gu diegu aurre egin", gaineratu zuen Zaratek.

"Datozkigun astinaldiak inoiz eza-gutu ez ditugun dimentsioak izango dira"

Txillardegiren berba batzuekin amaitu zuen bere berbaldia: "Estatu bategaz, agian, euskara ez da salbatuko; estatirik barik, ziur ezetz". Kurdistanetik etorritako ordekaritzako kide batek ere berba egin zuen.

Politikan

Garazi Errasti Silloniz
EH-Bildu



Euskaraz ta kitto

Abenduaren 3a, aldarrikapen eguna, euskaldunon ondare garrantzitsu eta balio gehien duenaren aldeko eguna.

Durango, urtero, egun honen baitan, bost egunez, Durangoko Azoka izaten dugu. Herria milaka euskaldun eta euskal hiztunez betetzen zaigu eta euskara eta euskal kultura aldarri jartzen ditugu. Kaleetan zehar Euskal Herriak dituen euskalki guztiak entzungarri izaten ditugu, ahoskeran "ese" eta "zeta" letren soinua bereitzen da, eta Durango EUSKARA eta KULTURA HERRIA dela nabarmentzen da.

Baina aldarrikapen egunak pasa eta bakoitza bere egunerokotasun eta errealtatera bueltatzen da. Batzuek eskolan euskaraz jarraitzen dute, beste batzuek bizitza euskaraz egiten dute, eta askok gure hizkuntza preziatua alde batera utzi eta erdaldundu egiten dira.

Euskarak 365 egun, ondo dakigu guk hori, baina egiten al dugu? Euskaraz bizi eta urteak dituen egun guztiak euskaraz egiten al ditugu? Erantzuna ezekoa da tamalez, egingo bagenu honezkero erdaldunek jakingo zuketen eta. Beti, euskara ez dakien norbaitengatik, gaztelaniaz egitera ohituta dauden lagunengatik edota, lanean euskaraz aritzeko aukera izan eta berau alde batera uzten dutenengatik gure hizkuntza baztertzen dugu.

Ez dezagun Europako zaharrena den gure euskara galtzen utzi. Euskarak egiten gaitu euskaldun, euskara da gure kultura eta izaeraren ardatza, eta, beraz, kantak dioen moduan "Behin betiko, behin betiko, single bezain tinko, EUSKARAZ TA KITTO".

Durangaldea asteen

Domekan, abenduak 12, nekazari eta artisauen azoka egingo dute Otxandion

Otxandio | Domekan XXI. Nekazari eta Artisauen Azoka egingo dute Otxandion. 10:00etatik 14:30era, askotariko produktuak erosi eta dastatzeko aukera egongo da bertan. Horrez gainera, 13:00etan, herri kirolak egongo dira. Udane Ostolaza harri jasotzaileak eta Garazi Urrutia eta Irati Astondoa aizkolariek erakustaldia eskainiko dute.

Atzeratu egin dute gaur Elorrion egitekoak ziren Berton Bertokoa gala

Durangaldea | Berton Bertokoa dinamika umorez, sari banaketaz eta ikuskizunez beteriko gala antolatu zuen gaurko, baina, antolatzaileek jakinarazi dutenez, atzeratu egin dute gala. Oraindino ez dute data zehatzik ipini, baina udaberri aldera egitea da euren asmoa.

Gutuna

Agur, Gerardo

Gutun hau idazten deusut zauzen lekuen zauzela agur esateko. Bizitzak, ez dakit zergaitik, ez deusku gestu txiki hori egiten utzi. Zure umore pikante horren eta zugaz izandako konbertsazio txikien faltie igerriko dot. Pertsona asko dau munduen, baina gutxiak daukie zure klasie eta izakerie. Agur betirako, Gerardo. Mugarra aldetik pasetan nazenien zutaz akordauko naz... Txoriek lasaitu ederra hartu dabe. Eskerrik asko nire bizitzan kruzau zarelako, plazer bat izan da. Agur.

Eneko Barroeta Usubiaga

Iritzia

Beste autobide elektriko baten mehatxua Amorebieta-Etxanon

Amorebieta-Etxano izango omen da goi-tentsioko linea elektrikoaren dentsitate handiena duen Euskal Herriko udalerrria, izan ere, 22 km linea elektriko zeharkatzen dute udalerrria, eraikitzen ari diren Gueñes-Itsaso linea elektriko kontuan hartu gabe.

Hau gutxi ez eta udalerrria zeharkatuko duen beste linea elektriko bat dago mahai gainean, Altsasutik Gatarainoko 400 kV-ko linea, zeinen helburua den Zaragozan —bai, ondo irakurri duzu, Zaragozan!— aurreikusten diren parke eoliko eta fotovoltaiakoetan sortutako energia Gataraino konektatzea sarera.

Beste behin, interes ekonomikoa nagusitzen da gizarte- eta ingurumen-interesaren gainetik; izan ere, eraikitzen ari diren Gueñes-Itsaso, hala nola linea berri honen helburu nagusia Espainian sortutako energia-soberakina Europari "saltzea" baita. Berdez margotzen badigute ere, horrek asko saltzen baitu, negozioa hutsa da.

Zornotzarrok pribilegiatuak gara; hirigunetik minutu eskasera, naturaz goza dezakegu, Bizkargi iparralderantz, Aramotz hegoalderantz. Baina konturatu orduko, sekulako dorre eta segurtasun-kaleak izango dituzten bi linea elektriko hauek gure mendiak zeharkatuko dituzte. Horien azpian zuhaitz eta zuhaixka oro moztuko da, paisaia bi orbain handi sortuz. Gure begien aurrean paisaia desitxuratzeaz gain, bestelako eraginak izango dituzten orbainak, batez ere basa-bizitzari dagokionez (hegaztiak izango dira kaltetuena), Urdaibai eta Urkiola arteko korridore ekologikoan.

Zentral termikoa, AHT, Autzaganeko tunela, Gueñes-Itsaso linea elektrikoak... Ez da gure udalerriri eragiten ez dion megaproiekturik. Agian planto egin eta geratzen zaigun apur hori babesteko momentua iritsi da.

Izaskun Oyanguren eta Ander Uriarte Zornotzako EH Bilduren izenean

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9. - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarre edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

7[#] MIÑAN Amets Arzallus & Ibrahim Balde (Susa)

2[#] DENA AMETSA DEN IRUDIPENA Leire Vargas (Elkar)

3[#] ASTERIX ETA GRIFOA Jean-Yves Ferri & Didier Conrad (Salvat)

4[#] NOLA GORDE ERRAUTSA KOLKOAN Miren Agur Meabe (Susa)

5[#] SORTALDEKOAK Hedoi Etxarte (Susa)

eta gabonetako POTOLUE HEMEN JAUSTEN bada? BERRIRO


LOTERIA HIRU

94 620 04 57
Loteria Hiru - Administrazioa Zb. 1
San Prudenzio 2 - MATIENA (Abadino)




ITZALAK

Beheko itzal hauetatik zein dago ondo?



DIFERENTZIAK

Topatu irudi bien arteko zazpi diferentziak.





'Kenophobia'

ANTZERKIA ZORNOTZA :: Abenduaren 10ean

Bakardadeari diogun beldurrean oinarrituriko dantza ikuskizuna

Kenophobia Jaiotz Osak eta Xabier Mujikak sorturiko dantza garaikide pieza bat da, hutsuneari eta bakardadeari diegun beldurrean oinarriturikoa. "Mundu koloretsu batean oinarrituriko istorio sakonak" lantzen dituzte sortzaile biek, eta horren adibide da *Kenophobia*. "Gure lanen unibertsoak oso koloretsuak dira, obra guztiak definitzen

dituela esango genuke. Era natural batean sortu den zerbait dela uste dugu eta era berean asko gustatzen zaigu hain iluna iruditzen zaigun dantza garaikidera argi apur bat ekartzea. Aldi berean, gai sakonak jorratzen ditugu, dramaturgia ere asko landuz", esan dute. Gaur, birako azken emanaldia egingo dute Zornotza Aretoan, 20:00etan.

Abenduaren 10ean

DURANGO **berbaldia**
'Existitzen ez den gurasoen alienazio sindromea: umeen eta emakumeon kontrako tortura instituzionala' (Hizlaria: Irune Costumero), 19:00etan, Andragunean. Andreak elkarteak antolatuta.

ELORRIO **lehiaketa**
'24 Ordu digitaletan' Arriolako Film Laburren Lehiaketa. Antolatzaileek gaia azalduko dute 17:00etan Arriolan, eta parte hartzaileek 24 ordu izango dituzte euren proposamenak aurkezteko.

ZORNOTZA **musika**
Xatiro, 20:30ean, Zelaieta Zentroan.

Abenduaren 11n

BERRIZ **antzerkia**
'Lubaki lainotsua' (ATX Teatro), 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO **antzerkia**
'El alimento de las moscas' (Kabia Teatro y Teatre de l'Enjòlit konpainiak), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

Abenduaren 12an

ABADIÑO **azoka**
Abadiñoako Emakume Sortzaileen Azoka, 11:00etatik 15:00etara, Traña-Matienako eskoletako patioan.

DURANGO **musika**
Donostiako Orfeo Gaztea, 19:30ean, Andra Mariko basilikan. Musika Hamabostaldiaren eskutik.

OTXANDIO **azoka**
XXI. Nekazari eta Artisauen Azoka, 10:00etatik 14:30era, plazan.
Herriko dultzaineroak eta trikitilariak, 11:00etatik 13:00etara.
Herri kirolak, 13:00ean.

Abenduaren 13an

ABADIÑO **literatura**
Irakurketa kluba, 19:00etan, Errota kultur etxean. Gaztelaniazko saioa Peru Magdalenak dinamizatuta.

Abenduaren 14an

ABADIÑO **literatura**
Irakurketa kluba, 19:00etan, Errota kultur etxean. Euskarazko saioa Mikel Antzak dinamizatuta.

BERRIZ **ekitaldia**
Euskararen Kriseilua Piztea, 18:00etan, Berrizko Kultur Etxean. Euskararen Egunaren haritik antolatutako ekitaldia.

Abenduaren 15ean

BERRIZ **dokumentala**
'Hirian hil' film dokumentala, 18:30ean, Berrizko Kultur Etxean.

Abenduaren 16an

BERRIZ **liburu aurkezpena**
'Uhartea bat Venusen' eta 'Etxepare jalgi hadi batura' (Xabier Amuriza) liburuaren aurkezpena 18:30ean, Berrizko Kultur Etxean.

Abenduaren 17an

DURANGO **berbaldia**
'Komunikazio ez bortitza', 17:00etan, San Jose Jesuitak ikastetxean.

ELORRIO **antzerkia**
'Konpromisoa' (Txalo Produksioa), 20:00etan, Arriola antzokian.

ELORRIO **musika**
Gabonetako kontzertua, 20:00etan, Zornotza Aretoan. Zubiaur Musika Eskolako ikasleen eskutik.

Abenduaren 18an

ATXONDO **tailerra**
'Abortuaren dolua' tailerra, 10:00etatik 12:30era, Alboan Psikogunean. Izena eman behar da, abenduaren 15a baino lehenago, 688 774 295 telefono zenbakira deituta.
'Kattalin ez da jaio' liburuaren aurkezpena, 12:30ean.

BERRIZ **ipuinak**
'Mari Domingi, altxor sekretua', 12:15ean, Berrizko Kultur Etxean.

BERRIZ **musika**
'La costa de los mosquitos' (Travis Birds) musika ikuskizuna, 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO **musika**
Fetén-Fetén, 19:00etan, San Agustin kulturgunean. Musika Hamabostaldiaren eskutik.

OTXANDIO **antzerkia**
'Ez dok ero' (Tartean Teatroa konpainia), 19:00etan, eskolako gimnasioan.

ZORNOTZA **musika**
'Bidaia hemen eta orain' (Zornotzako Musika Banda), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Zinema

:: **Berriz**
KULTUR ETXEA

· **Clifford**
barikua 10: 17:00
domeka 12: 17:00

:: **Durango**
ZUGAZA

· **El Lodo**
barikua 10: 19:30/22:00
zapateria 11: 19:30/22:00
domeka 12: 19:45
astelehena 13: 18:00
martitena 14: 18:00/20:15
eguztana 15: 18:00/20:15

· **Querido Evan Hansen**
barikua 10: 20:00
zapateria 11: 18:00/21:00
domeka 12: 17:00/19:45
astelehena 13: 19:15
martitena 14: 19:00
eguztana 15: 19:00

· **Alegria**
barikua 10: 19:30/22:00
zapateria 11: 19:30/22:00
domeka 12: 19:45
astelehena 13: 20:15
martitena 14: 18:00/20:15
eguztana 15: 18:00/20:15

· **Clifford**
zapateria 11: 17:30
domeka 12: 17:30

· **Encanto**
zapateria 11: 17:00
domeka 12: 17:00

· **Aita Mari**
eguztana 16: 20:00

· **Depedro**
eguztana 16: 20:00

· **Fokuan Gizarte Zinema:**

Haizearen egia + Ocupación S.A.

eguztana 16: 19:00

:: **Elorrio**
ARRIOLA

· **El poder del perro**
domeka 12: 20:00
astelehena 13: 20:00

· **Ron da Error**
domeka 12: 17:00

· **'24 ordu digitaletan', Arriolako film laburren lehiaketa**
zapateria 11: 20:00

:: **Zornotza**
ARETOA

· **Spencer**
domeka 12: 20:00
astelehena 13: 20:15

· **First Cow**
martitena 14: 20:15

· **Valentina**
domeka 12: 17:00



Durangaldeko historian eta ondarean sakontzeko aukera berria:

- Durangaldeko basoen argazkia
- Durangaldeko Sixtina kapera Zaldibarren
- Elorrio, harria, egurra eta burdina
- Musika ez dadila gelditu. Durangaldeko musika eta musikariak
- Durangoko Andra Mari elizpea XX. mendearen lehen erdian
- Oiz mendiaren mila aurpegi
- Ibilbide luzeak Durangaldean zehar
- Babel dorrea. Migrazio-mugimenduek Durangaldera ekarritako hizkuntza-aniztasuna



*Salgai eskualdeko ohiko saltokietan eta Gerediaga Elkartearen bulegoan



DURANGOKO AZOKA • ARITZ MALDONADO
Maskaragaz eta aforo murriztuagaz, baina Landako Gunea beste urte batzuetako itxura hartu du 56. Durangoko Azokagaz; baita beste guneek ere. Internet bidezko iazko Azokaren ondoren, Gerediaga elkarteak aurrez aurreko bueltatzeko erabakia hartu zuen; sare bidezko dendari ere eutsi diote aurtun. Osasun neurri zorrotzekin, kulturzaileek egunean bost txanda eduki dituzte Landako Gunea sartzeko. Txanda horietariko asko beteta egon dira eta antolatzaile zein ekoizleak pozik agertu dira Durangoko Azokaren itzuleragaz. Gerediaga elkartearen esanetan, 25.000 kulturzailek bisitatu dute Landako Gunea egunotan, eta balorazio positiboa egin dute, salmentak beste urte batzuetan baino txikiagoak izan direla onartu duten arren. Klean eguraldi hotza eta euritsua egin arren, kulturzaileek zaleen berotasuna jaso dute stand eta guneetan. Horrela, berriro ohi-koak bilakatu dira artistak zaleekin kontu kontari ikusteko uneak. Horregaitik, kulturzaileen, argitaleen, diskoetxeen eta sortzaileen konpromisoa eta ardura eskertu ditu Gerediaga. "Pozik gaude berriro ere batzeko aukera izan dugulako, kulturzaile eta sortzaileak plazan elkartu ditugulako berriro, egungo egoerara moldatuta bada ere", azaldu du Nerea Mujika Gerediaga elkartearen presidentek.

Ekitaldirik jendetsuenak Aho-tsenean izan dira, Plateruenean. Anari, Willis Drummond eta Liher musika taldeen kontzertuak, adibidez. Literatur solasaldien kasuan, Alaine Agirreren, Eider Rodriguezen, Jon Maiaren eta Leire Vargasen aurkezpenak izan dira jendetsuenak. Bestalde, 2022ko Durangoko Azoka abenduaren 7tik 11ra egingo dela aurreratu du Gerediaga elkarteak.

IV. Sormen Beka, Gipuzkoara
Aurten, laugarrenez eman dute Sormen Beka. Sortzaile berriei euren ibilbide profesionala garatzen laguntzeko helburuagaz banatzen dute Gerediaga elkarteak eta Durangoko Udalak. Laugarren beka hau Ibai Aizpuruari eman diote, *Barraka* proiektua garatzeko;

Aurrez aurreko bueltatu eta "kultur plaza" bilakatu da berriro ere Durangoko Azoka

2022ko abenduaren 7tik 11ra egingo dute 57. Durangoko Azoka; Gerediaga aurtengoaren balorazio positiboa egin du



Kulturzaileen jarrera txalotu dute antolatzaileek.

diseinatzaile eta programatzaile irundarrak urtebeteko epea izango du bere proiektua garatzeko, eta 15.000 euro jaso ditu helburu horretarako. 2022ko Durangoko Azokan

IV. Sormen Beka Ibai Aizpuruak jaso du; urtebeteko epea du 'Barraka' garatzeko

aurkeztu beharko du. Orain arteko irabazleak *AtopiaRPG* euskarazko lehenengo rol jokoa, Kai Nakai musikaria eta *Bañolet* websaila izan dira.

Bekaren aurtengo gaia sorkuntza digitala izan da. Hain zuzen ere, bideo-joko bat izango da *Barraka*;

irudi errealak, stop-motiona eta animazio tradizionala uztartuko ditu. "Azken urteetan bideo-joko proiektu txiki ugari sortu dut laguntza erraldoi honi eskerrak, baina aurrerapauso bat emateko aukera eman zidan: bideo-joko oso bat garatzeko ahalmena", azaldu zuen Aizpuruak prentsaurrekoan. Lorea Arakistain PuntuEUS fundazioako komunikazio arduradunak eta aurtengo epaimahaiaren bozeramaileak "plazerezko mundu" lez definitu du *Barraka*. "*Barraka* oso proposamen iradokitzaile eta tentagarria da. Haurrentzat fantasiako mundu estetiki eder eta gozagarria sortzen du, begiekin jateko modukoa. Era berean, helduoi barruan ahaztuta izan ohi dugun mundua ateratzen lagun-

duko digu. Haur izan garen guztiontzat ezagunak diren bizipen eta erreferentziekin: herri txiki bateko festak, barrakak, gozokiz jositako mundu bat... plazerez

Arbaso elkarteak antolatzen duen Euskal Dendak 15.000 bisitari jaso ditu egunotan

betetako mundu bat", adierazi du Arakistainek. Arakistainez gainera, Diana Francok (Kabi@ guneko arduraduna), Vanesa Fernandezek (Zinebi jaialdiko zuzendaria), Rakek Esparzak (Azkuna Zentroko programazio arduraduna) eta Iker Fidalgok (Arte Ederretan doktorea

eta ikertzaile independentea) osatu dute epaimahaia.

Euskal Denda gazi-gozoa

Arbaso elkarteak "harro" agertu da Euskal Dendak eduki duen harreragaz. Bost egunean ia 16.000 bisitari jaso ditu. "Harro gaude funtzionatu duen moduz, bisitariak azaldu duten errespetuaz. Jarraitu beharreko adibide bat izan dela uste dugu", azaldu dute. Hala ere, "pena" geratu zaie Arbasoren 25. urteurreneko ospakizuna ospatu barik utzi behar izan dutelako. "Festa handi bat ospatu gura genuen Artetsu Sarien ospakizunagaz, baina zentzudun jokatzeara nagusitu da, artisauen partetik zein publikoaren partetik", gaineratu dute.



2021eko euskarazko liburu eta diskoen bilduma

Kontsultatu BERRIAN, eta erosi zure herriko dendan edo Durangoko Azokan

Berria.eus/liburu-eta-disko-berriak/



berria zuk badakizulako



Nerea Mujika, Ima Garrastatxu, Ibai Aizpurua eta Lorea Arakistain. DURANGOKO AZOKA



irudienea. DURANGOKO AZOKA



Giante.



Madeleine.

Gai librean

Vinu, cantares y amor

Nacho Vegasen kantaren izenburua hartu dut kolaborazio honen izenburutzat nik ere. Gure arteko batzuentzako Anarik bihurtu digu ezagun kanta hori. “Que si nun hai vinu, cantares y amor, Non, esta nun ye la mía revolución” asturiarraren “Kantatu, maitatu eta dantza ezin bada, ez da gure iraultza!” bertsoia eman digu azkoitiarrak.

Ez dugu orain gogora ekarriko Anarik eta lagunek bideoa grabatu eta gutxira Putzuzulo Ametsen Fabrika eraistea agindu zuteneko. Gogoeta bidera dezagun, hobeto, kantaria bertsoia egitera bultzatu zuen bilaketara: bizi ditugun garaietarako esperantzarako kanta antzeko bat sortzekotan ezin asmatua aitortu du artistak bertsoia egitera bultzatu zuen arrazoitzat. Jada sorturik zegoen kanta ikusi zuen egoki bere bilaketan sortu beharra sumatzen zuena islatze-



Josune Aranguren Zatika
Filosofoa

ko. Jarrera dotorea, nire ikuspuntutik. Artista ez garenok artistak behar ditugu norbere barneko pentsamendu, sentsazio edota zirrarei forma emateko. Baina eta artista direnek ere bai, bistan denez.

Anboto komunikabide honen web orrian ari nintzen Plateruenako Anariren emanaldiaren bideoa ikusten eta gaiaz idatzi ahal izateko dokumentatze lanetan hasita, hona hemen Google-k egin zidan iradokizuna: utzizu hainbeste pentsatzeari eta askatu zaitetz pentsaera diskurtsibotik. Edo Google-k edertotxo ezagutzen nau (seguru baietz) edo “Vinu, cantares y amor” kantaren mezua adierazteko beste modu batzuk ari zitaizkidan eskaintzen bilatzailelik ospetsuena. Arrazoi biak ala biak ere, gutxienez, harrigarriak.

Eskubideen urraketak gertatzen diren garai honetarako, irtenbide desberdinak ditugu aukeran. Delacroix-ek Frantziako iraultza amaitu eta 30 urtera

margotu zuen *La Liberté guidant le peuple*. Artea iraultzaren osterako uzten dute batzuek. Durangoko azokan, aldiz, geure porroten gaineko gogoeta desberdinetan sustrai hartuta, imajinario berriak helburu dituztela ikusi ditut sortzaile gazteak. Anarik bilatzen zuen esperantzarako kanta gazteengandik datorrela ematen du. Google-n aholkuari men eginez pentsaera diskurtsiboak zehar-lerro bezala baino ez dituzten arte-sorkuntza bideetan barrena proposamen asko eta oso interesgarriak oparitu dituzte artista gazte horiek. Gizarte kohesioa eginez gizarte kohesiorantz.

Y esto que diba a ocurrir - Eso ya nun va ocurrir - Porque tá ocurriendo agora.

Eta gertatzeaz zena, ez da inoiz gertatuko - gertatzen ari delako.

Kantatu, maitatu eta dantza egin distopiarako bidetik baztertu eta utopiarantzkoa hartzeko. Ahal DA!
<https://josunearanguren.blogspot.com/>.

Onestik erakustaldia Elorrioko ziklo-krosean, eta Orts-ek garaipena laugarrenez

Olivia Onesti frantziarrak eta Felipe Orts alacantarrak goitik behera agindu zuten Elorrioko ziklo-krosean

ZIKLO-KROSA • J.D.

Itxaroten zen baino eguraldi ho-beagaz lehiatu zuten Elorrioko Basqueland Nazioarteko Ziklo-krosa eguazten eguerdian. Hotza bai, baina, orokorrean, ez zuen euririk egin, une batzuetan salbu. Hori bai, aurreko orduetako euriaren ondorioz ibilbidea guztiz lokaztuta eta oso astun zegoen, eta horrek asko gogortu zuen ziklisten lana.

Lucia Gonzalez asturiarrak bigarren postuagaz konformatu behar izan zuen emakumeetan

Emakumeen elite mailan, Olivia Onestik erakustaldia eman zuen. Frantziarra oso gaztea da, 18 urte egin zituen herenegun, eta hasieratik amaierara agindu zuen lasterketan. Itzuliak osatu ahala atzekoekiko alde handitzen joan zen. Helmugan minutu eta erdiko alde atera zion Lucia Gonzalez asturiarrari. 2019an ere ziklista bi hauek sailkatu ziren lehenengo toki

bietan, baina orduan Gonzalez nagusitu zen. Amelie Laquebe-k osatu du podiuma aurten. Bizikletak.com taldeko Olatz Odriozola izan zen euskaldunik onena, zortzigarren postuan.

Punta Galea taldeko Jon Munitxa abadiñarra 16. postuan sailkatu zen gizonen elite mailan

Gizonetan, Felipe Orts alacantarrak laugarrenez irabazi zuen Elorrioko ziklo-krosa. Kasu honetan ere, irabazleak lehenengo tokian eta bakarrrik eman zituen itzuli guztiak. Bigarren posturako, lehia estuagoa mantendu zuten David van der Poel eta Luke Verburg herbeheretarrek. Lehenengo itzulian elkarrengaz igaro ziren helmugatik. Gerora, van der Poel-ek aurrera egin zuen, baina alde nabarmenik atera barik. Helmugan 16 segundo egon ziren bien artean. Gorka Izagirre izan zen euskaldunik onena, zortzigarren. Eiser-Hirumet taldeko Iñaki Guaresti 15. tokian geratu zen eta Punta Galea taldeko Jon Munitxa abadiñarra 16. postuan.



Olivia Onesti Elorrioko helmuga zeharkatzen.



Felipe Orts alacantarra Elorrioko helmugan.



Ezkerretik, van der Poel, Orts eta Verburg txirrindulariak.



Ezkerretik, Gonzalez, Onesti eta Laquebe txirrindulariak.

Errege Kopan aurrera eginda eta ligan Malagaren kontra irabazita, bolada onean dago Amorebieta futbol kluba

Amorebietak denboraldiko bigarren garaipena eta etxetik kanpoko lehenengoa lortu zuen Malagan; Ordura arte, Rosaledan partidurik galdu barik zegoen talde andaluziarra; abenduaren 16an Errege Kopako bigarren kanporaketa jokatu du Amorebietak bere benetako etxean, Urritxen



Amorebietako jokalariek Malagan sarturiko gol bat ospatzen.

Azken aste bie erreparatuta, Amorebieta bolada onean sartuta dagoela esan daiteke. Etxean jokaturiko azken partiduan puntu bat urratu zuen Zaragozaren kontra, eta ez da gutxi 20 minutu baino gehiago jokalaria bat gutxiagotzat jokatu zuen eta. Ondoren, aste barruan, Errege Kopako lehenengo jardunaldia gainditu zuten Bartzelonako Europa taldea 0-1 menderatuta.

Malagako garaipenak ez dio balio jaitsiera postutik irteteko, baina bai argia gertuago ikusteko

Errege Kopa, Urritxen

Etxera bueltatzeko aukera izatea ere albiste ona da, bai jokalarientzat, bai zaleentzat. Izan ere, Almeriaren kontra jokatu duen Errege Kopako bigarren kanporaketa Urritxen futbol zelaian jokatu dute, abenduaren 16an. Horixe izango da Bigarren Mailako talde lez Amorebietak bere benetako etxean jokatu duen lehenengo neurketa ofiziala.

Baina horren aurretik Las Palmas taldea hartuko dute Lezaman, domeka arratsaldean. Mailako beste oilar bati irabazteko abagunerik badago, bolada gozo honetan da.

FUTBOLA • J.D.

Garaipenek zapore gozoa izaten dute beti, baina joan zen asteburuko bereziki mamitsua izan zen Amorebietarentzat. Ez azkeneko garaipena lortu zutenetik hiru hilabete joanak zirelako bakarrik, baita etxetik kanpora lortzen zu-

ten lehenengoa zelakoa ere. Hori gutxi balitz, aurkariaren maila ere kontuan hartu beharra dago joan zen asteburuko garaipenari merezi duen balioa emateko. Malaga, Bigarren Mailako zazpigarren sailkatua, etxean partidurik galdu barik zegoen ordura arte.

Ordu erdi bete orduko Amorebieta 0-2 irabazten zebilen Gurezeta sarturiko gol biri eskerrak. Orditik aurrera, Malaga ezinean aritu zen eta ezin izan zuen alde murriztu 94. minutura arte. Malagakoek gola sartu eta berehala amaitu zen partidua, eta hiru pun-

tuek Zornotzarako bidea hartu zuten.

Garaipen horrek ez die balio zornotzarrei jaitsiera postutatik irteteko, baina bai salbazio postuak gertuago ikusteko. Orain lau puntura dute Fuenlabrada azken laugarren sailkatua.

Jokaldia

Abadiñoko ginkana bizikletan

Pentsatu eta egin. Bai, horixe da nire leloa bizitzan, eta baita nire taldearena ere. Emakumeen txirrindularitza profesionalean hirugarren denboraldia bete eta gero, gure taldea, Eneicat, munduko 21 talderik onenen artean dago. Datu hauen atzean lan eta istorio asko daude. Ez baita erraza talde bat aurrera ateratzea. Neska gazteek, sarritan, ez dute txirrindularitzan aritu nahi edo ez dute ziklismo profesionalak eskatzen duen sakrifizioan murgildu gura.

Horrela, pandemian, familia askok bizikleta hartu eta kirola elkarrekin egitea erabaki zuela ohartuta, Abadiñon umeei begirako bizikleta eskola bat sortzea pentsatu nuen, eta, harrezkero, ume guztiei bizikletan ibiltzeko aukera emateko, ginkanak antolatu ditugu, hilero. Abadiñon hasi ginena,



Eneritz Iturriaga
Mazaga
Txirrindularitza

"Ginkanen orain arteko erantzuna oso ona izaten ari da. Gabonetarako ekimen gehiago prestatzen gabiltza"

"Gatxena umeei eustea da, hurrengo egunean ere bizikleta esku artean hartu dezatela lortzea"

baina beste herri askok ere interesa erakutsi dute. Azken batean, bizikleta gaineko ariketekin eta jolasekin asko dibertitzen dira umeak. Gainera, emakumezko txirrindulari profesionalak edo profesional izandakoek gidatzen dituzte beti ginkana hauek.

Ezin gara kexatu. Ginkanen orain arteko erantzuna oso ona izaten ari da eta pozik gaude. Eta erantzun honen aurrean, Gabonetarako jolas eta ekimen gehiago prestatzen ari gara. Labost urtetik 12 urtera arteko umeei bideratutako ekimenak izango dira.

Ginkanak antolatzea pozgarria da, baina beste erronka bat ere badugu aurretik. Gatxena umeei eustea da, hurrengo egunean ere bizikleta hartu dezatela lortzea. Ez dadila egunpasa soil bat izan, baizik txirrindularitza-rako zaletasuna piztuko dien ekimen bat.

2022-2023 denboraldirako oso albiste onak ekarriko ditut txirrindularitza eskolen gainean. Bien bitartean, buru-belarri lan egitea dagokigu. Amaitu aurretik, Abadiñoko Udalarri eskerrak eman gura dizkiot, euren laguntza dugulako proiektu guztiak bideratzeko.

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// AUKERA

ABADIÑO: Lursaila. Eraikigarria. 1.000 m2. AUKERA.

ABADIÑO: Etxea. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. Terraza. Lokal komertziala eta garajea. Aparkaleku pribatua. Txokoa. 300 m2-ko lorategia. Tresnak gordetzeko txabola. **415.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

BIXENTE KAPANAGA: 110m2. Etxebizitza altua. Ikuspegiak. Berriztatua. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela terrazarekin. **C.E.E=E 230.000 €**

ZALDIBAR: 114 m2. Etxebizitza altua. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Aire egokitua. 2 kotxerentzako garaje itxia. 42m2-ko ganbara. Etxebizitzarekin bat egiteko aukera. Txokoa. Ikasgela. **C.E.E=F 252.000 €**

DURANGO: 2 logela (lehen 3 logela) Komuna, Sukalde-jangela eta egongela. Ganbara. Berriztatua. **C.E.E=E 145.000 €**

DURANGO: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. C.E.E=G Aparkaleku pribatua. **85.000 €**

BERRIZ: 74 m2. 3 logela, komuna dutxagaz, sukaldea eta egongela. Terraza. Igogailua. C.E.E=F ALOKAIURUAN, EROSTEN AUKERAGAZ. **110.000 € / 550€**

ZALDIBAR: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. Berriztatua. C.E.E=E Alokairuan **500€**, erosten aukeragaz. **99.000 €**

MATIENA: 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta despentsa. Terraza. Igogailua. **C.E.E=F 149.000 €**

J.M. ALTUNA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. **C.E.E=G 199.500 €**

DURANGO: Berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. **C.E.E= F 130.000 €**

MADALENA: 132 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. 2 ganbara. Garajea eta bodega-trastelekua. **C.E.E=F 286.000 €**

EZKURDI: 175 m2. 5 logela, 3 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara. Garajea aukeran. **C.E.E=F 325.000 €**

KURUTZIAGA: 80 m2. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **C.E.E=G 179.500 €**

SANTA ANA: 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Berogailua. Leho berriak. Ganbara. **C.E.E=E 125.000 €**

ABADIÑO: Zeletabe. 4 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 2 terraza. **C.E.E 180.000 NEGOZIAGARRIA.**

MATIENA: San Prudentzia. 101 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Eguzkitsua. **C.E.E=E 178.000 €**

MATIENA: Erezena. 3 logela, komuna, sukalde-egongela eta despentsa. Terraza. Ganbara. Igogailua. **C.E.E=E 155.500 €**

MATIENA: Pisu altua. 3 logela, komuna eta sukalde handia. Igogailua. Ganbara. **C.E.E=G 114.000 €**

IURRETA: DANTZARI. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. **C.E.E= F 140.000 €**

IURRETA: Santa Maña. 3 logela, komunak, egongela eta sukaldea. 15 m2-ko trastelekua. Parking pribatua. **C.E.E=F 160.000 €**

IURRETA: Bixente Kapanaga. 92 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. **C.E.E=G 205.000 €**

ZALDIBAR: Euskal Herria. 2 logela, 2 komun sukaldea eta egongela. Terraza. Garaje itxia. **C.E.E=E 198.000 €**

ZALDIBAR: 95 m2. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza. Garajea. **C.E.E=F 206.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Aramotz auzunea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Prezio ezin hobea.

DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantokiagaz eta egongela.

DURANGO: Antso Estegiz. 3 logela, 2 komun, sukalde-jangela eta egongela. Ganbara.

MAÑARIA

KIRIKIÑO KALEA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Balkoia. Igogailua. Argitsua.

ABADIÑO

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

GAZTELUA: 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria
ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarriko baserria salgai. 40.000 m2-ko lur saila. Berriztatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatuzeko.

//BULEGOAK ALOKAIURUAN

ABADIÑO

30 m2-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIURUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA

ALOKAIURUAN

BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m2-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

MATIENA: 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com

IURRETA 70 m²
3 logela
BIDEBARRIETA: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoaldea). Leku onean kokatua. Erdialdetik gertu. ITE-a 2018.urtean pasatutakoa.
159.000 € C.E.E: E negoziagarria

MATIENA 57 m²
SOLAGUREN: Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, despentsa eta komuna. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoaldea). Leku onean kokatua. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan. 6 m2-ko ganbara.
120.000 € C.E.E: F

DURANGO 3 logela
75 m²
KALEBARRIA: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Lehenengo solairua igogailu barik. Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialdea) Erdialdean kokatua. Erdi berriztuta. Ganbara. ITE-a oraintsu eguneratua.
137.000 € C.E.E: E

BERRIZ 3 logela
79 m²
MAZAGA: Egongela, sukaldea eta komuna. 2 balkoi. 40 m2-ko ganbara. (etxebizitzaren gainean). Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. (mendebaldea) Berriztatzeko. Ezin hobea norbere gustura jartzeko. Leku lasaia. Igogailua.
119.000 € C.E.E:F Aukera

DURANGO 82 m²
3 logela
FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, despentsa eta komuna. Pisu altua. Etxe erdiak kanpora ematen du. (Iparraldea) Leku onean kokatua. Garaje partzelarako aukera + 10.000 euro, etxebizitzatik bost minutura. Aukera asko. Igogailua.
195.000€ C.E.E: E Aukera

DURANGO 95 m²
EZKURDI: Egongela, jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Etxebizitza altua. Etxe erdiak kanpora ematen du (iparraldea). Leku onean kokatua. Igogailua.
265.000 € C.E.E:Bidean

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. **90.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 288.000 € / E.E.Z=F**

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Bulegoa. **220.000 € / E.E.Z=E**

GOIENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **135.000 € / E.E.Z=E**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **120.000 € / E.E.Z=E**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**

SAN AGUSTINALDE: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. **200.000 € / E.E.Z=F**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke 600 m2-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

ATXONDO

ARRAZOLA ERREPIDEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

IURRETA

OROZKETA AUZO: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

IZURTZA

ELIZALDE AUZO: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

MATIENA

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**

OTXANDIO

ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**

ZALDIBAR

3 pisuko etxea. 4 logela, sukaldea, garbitokia, egongela eta 3 komun. Terraza. Lorategia, txokoa garajea eta trastelekua. **525.000 € / E.E.Z=E**

ALOKAGAI

Etxebizitza, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

GARAJEAK SALGAI

Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.

BERRIAK - DURANGO

GOIENKALE KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **112.000 € / E.E.Z=E**

Botikak

BARIKUA, 10 - 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 11 - 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurreondo 22. - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

SARRIA Sasikoa 17, **DURANGO**

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - **ELORRIO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 12 - 09:00-09:00

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 13 - 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 14 - 09:00-09:00

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 15 - 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 16 - 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AKARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA



Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.**

Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozaturangoo@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia



Zorionak, potxolo! Muxu potolo bat familia osoaren partez. Jarraitu horrela!



Zorionak, aittite **Eugenio**, etxeuon partez. 80 urte, zu bai zu tipue! Ez ahaztu egunero Arantzazuko egutegiko orritxo irakurtzea Lanperrin! Eta gero guri kontau!



2 urtetxo egin dozuz. Zorionak, bihotza!



Zorionak, **Elai!** 3 urte egin dozuz daueneko! Etxekuen partez mosu haundi bat!



Zorionak! Gure etxeko sorginak 6 urte egiten ditu. Izugarri maite zaitugu denok.



Zorionak, **Manex!** Abenduaren 11n urtetxo bat egiten dozuz! Mosu zaparrada Mara, aitatxo eta amatxon partez. Maite zaitugu!



Zorionak, **Aihotz.** Abenduaren 1ean 15 egin zenduzan. Jarraitu zaren modokue izeten. Muxu haundi-haundi bat.



Berandutxo baina... zorionak arratia! 35 urte ein dozuzen arren, zuk betigazte jarraituko dozuz!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 12° / 8° ☁

ASTELEHENA ↓ 14° / 6° ☀

EGUAZTENA ↓ 11° / 6° ☁

DOMEKA ↓ 15° / 7° ☁

MARTITZENA ↓ 12° / 6° ☁

EGUENA ↓ 11° / 4° ☁

Eskela



Gerardo Esturo Altuna

*Euria ta kazkabarra hodei arteko borrokan
Urretx makila eskutan joaten ziñen askotan
Lasai egizu bidea azken pasiada hontan*



Zure semen lagunak

IPUIN KONTALARIA
ABENDUAK 17

17:00 3-5 URTEAKO HAURRAK LAGUNDURIK

17:45 6 URTEK GORAKO HAURRAK

19:00 HELDUAK

SARRERA GONBIDAPENAREKIN IZANGO DA
946 81 27 26
biblioteca@iurreta.eus
WHATSAPPEZ: 688 86 37 36

'TXORIA TXORI'



ALAITZ MURO

Iurreta
Euzkateko Udala
HENRI BIBLIOTEKA

"Lan handia egin behar da arranoagaz konfiantzazko lotura sortzeko"

Ander Maiztegi hasiberria da falkonerian; Errioxako Tierra Rapaz hegazti harraparien susperraldi zentroan trebatu da eta Los Cetreros del Nervion elkarteko kidea da



Ander Maiztegi Ozamiz

Falkoneroa

BERRIZ | 1975

BERRIZ • AITZIBER BASAURI

Gatibualdian jaio arren basati modura hazitakoa da Gezi, Peruko Harris arranoa. Urtebete da Berrizko Sarria auzoan bizi dela. Ander Maiztegi ekarri zuen, Bilbotik, arranoen munduak liluratuta eta falkonero izan guran. Belatz-uhalak ipini eta Ander hutsetik hasi zen Gezigaz lanean. Orain, bien arteko lotura estua da. Arranoa hazteko oso garrantzitsua da higieena, eta dagoen tokian eguzkia eta gerizpea, biak, ematea. Jatekoa neurtu behar zaie, eta atzaparrak eta mokoa moztu.

Zelan murgildu zinen falkonerian?

Arranoak hegan ikustea zoragarria iruditu zait beti. Arranoa pasioa da niretzat. Halako bat etxera ekartzean, zaletasuna pasio bihurtzen

da. Lan bat egiten duzu hegaztiagaz, biok koordinatuta.

Hegazti harraparien bidezko ehiza da falkoneria. Arranoak hazi, zaindu eta trebatu egiten dira horretarako.

Bai, baina nik ehiza plantak egiten ditut harrapakin baten itxura duen panpina bategaz. Horri ondo lotuta janaria ipintzen dut, eta, gehiago motibatzeke, txilibituagaz deitzen diot Geziri. Bizkaian ehiza-barruti gutxi dago, urrundu egin beharko nuke eta garesti ateratzen zait. Gainera, ez dago harrapakinik. Dena dela, erakustaldi edo terapietarako ere erabiltzen dira.

Etxe inguruan eta gertuko basoetan hegan egiten du Gezik.

Bai. Oraindino ikasten nabil eta ez dut urrunago eramaten. Gainera,

arrano bat erantzukizun handia da. Ez dit inoiz eraso egin, nire inguruko ei ere ez, bion artean sorturiko konfinantza-loturagaitik. Lan handia egin behar da zaintzailearen

Arranoak hegan ikustea zoragarria iruditu zait beti. Arranoa pasioa da niretzat

eta arranoaren arteko lotura hori sortzeko, eta arranoaren lehenengo urte biak oinarrizkoak dira; hegaztia gizakiaren inguruagaz sozializatzea helburu duen plazeorako ere bai. Eskularruan edo arkuaren dagoen uneari deitzen zaio plazeoa.

Arranoagaz konfiantzazko lotura lortzeak emozio handia eragiten du. **Zelan lortzen da lotura hori?**

Eguneroko lanagaz eta pazientzia handiagaz. Arranoa sarien bitartez trebatuko dugu, inoiz ere ez zigortuta. Bada, beldurtzen ez den bakoitzean janariagaz sarituko dugu. Eguneke lezioagaz hasi aurretik, pisatu egin behar da beti, eta emisorea ipini. Eta oinarrizko hiru gauza kontuan hartuko ditugu: pisua (ehizarako, hegan egiteko edo muda-pisua), tokia eta ordua. Adibidez, arranoa leku eta orduz kanpo badago, pisuan egon arren, beldurtu egin daiteke. Baliteke ez bueltatzea eta galtzea. Gainera, ezin dugu bat-batean hegaldirako ordutegia aldatu. Ondo neurtuta egin behar dira aldaketak.

Beldurtiak dira arranoak?

Oso argiak dira. Segituan hartzen dute eguneke errutina. Baina urduiak ere badira eta zuhurtzia handiz jokutzen dute. Arriskua ikusita, ihes egingo dute. Konfiantza duelako joango da arranoa

Arranoak oso argiak dira. Baina urduiak ere badira eta zuhurtzia handiz jokutzen dute

zaintzailearengana, saritu egingo duelako. Izan ere, ehizatzea arriskutsua da, hil edo biziko borroka. Arranoa oso metodikoa da eta zaintzaileagaz duen lotura galduz gero seguruenik hil egingo da. Falkonerian erabiltzen diren arrano guztiak gatibualdian jaio direnez, ez dakite zaintzailerik barik egotea. Jaio eta 15 egunera eraztun identifikagarria ipintzen zaie hankan, eta Jaurlearitzaren hegazti harrapakarien erregistroan daude izena emanda.

Falkoneria ez dago oso errotuta hemen. Zein da zure helburua?

Gutxi gara. Ikustea gura dut, esperientzia hartzea. Bizitza osoa behar da horretarako eta alboan beste falkonero batzuk izatea ezinbestekoa da, aholkuak eman, zalantzak argitu eta sortu daitezkeen arazoak konpontzeko. Falkoneroak babes eta laguntza handia ematen diogu elkarri.

Lauhortza

Ainhoa Olaso Sopelana Behargina



Autorea eta obra

Eztabaida sortzen duen gaia da autorea eta obraren arteko harremanarena. Nik ere baztertu izan ditut abesti edota film batzuk, autorea gustuko ez izanagatik.

Baina sari banaketak izaten dira zalaparta azaleratzen dutenak: salaketa matxista duen aktorearen oroigarria Donostian, edota Euskadi literatur saria kartzelatik ihes egin zuenarentzat izan zenekoa -"nik ez nekien terrorista bat zenik" esan zuen epai-mahaikide bategatik.

Zaila da jakiten, non hasi eta non amaitzen den autorearen esku hartzea bere obran. Zerk egiten duen obra bat norbaitea, eta nola dagoen presente bertan.

Polanski zinegilearen kasuarekin (beste hainbatenek ere aipatuko genituzke), istiluak gaurdaino iristen dira. Frantziako kolektibo feminista batek artikulua bat idatzi zuen 2019an: "Gure misioa, instituzioetan amorrutako oihua entzunaraztea da, edertasunaren eta talentuaren izenean artista batzuk ukiezin bihurtzen baitira. Beste hitz batzuetan, bere pelikulak gustatzea zilegi da? Bai. Baina ez ditzagun lanak goraiatu, jendar-tean oraindik emakumeon minak eta testigantzak aintzat hartzen ez diren honetan."

Dena da esaten dena baino konplikatuagoa, beti. Bourdieu filosofo frantziarrak zioen ezinbestekoa dela sorkuntza lana, barne eta kanpo ikuspuntu batetik aztertzea.

Obra bere eboluzioan aztertzea interesgarria litzateke, autorearen estrategiak eta eragin eremuaren artean sortzen den harremanari begiratzu.

Ikusteko dago baina, zer egin festibal eta sari banaketekin. Zer saritu beharko genuke, autorea ala obra?

DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com